

HERRI HARRESIA JONE AMEZAGAREN ONDOREN

Atxiloketen aurkako mugimendua aurrera doa

Bere aurka bilatze eta atxilotze agindua zeukala, 20 egunen ostean, Ertzaintzak astelehenean atxilotu du azkenean Jone Amezaga errigoitiarra, ingurukoak kolpatuz eta borra luzagarriak erabiliz. Ehunka pertsonak modu batean edo bestean babestuta, ia hiru astez eraiki dute desobedientzia praktika. Elementu berriak jarri dira mahai-gainean, baita galdera berriak ere.

| AXIER LOPEZ / LANDER ARBELAITZ |

Argazkia: Topatu.info

“OSO POZIK NAGO hemen kanpoan, horrenbeste jenderen babesa jasotzen, eta Gernika herri libre bilakaturata”. Jone Amezagaren hitzak dira, 18 egun ezkutuan eginda, larunbatean kalera atera ostean ARGIA-ri esanak. Herria kartel, zapi, puxika eta aterki laranjaz bete dute Amezagari babesa ematen ari diren herritarrek. Asteburuan ehunka pertsonaren elkartasuna jaso zuen eta, astelehenean, 70 bat lagunek inguraturata, merkatuan atxilotu dute agenteek, borra luzagarriekin ingurukoak kolpatu ostean.

Berezitasunak izan ditu kasu honek, eta horien artean, nabarmenetakoa Amezaga ez dela leku finko batean egon agertu zenetik atxilotu duten arte. Hiru gune nagusitan antolatu dituzte ekintzak, eta asteburuan zehar kasuak sona handia izan du Gernikan. Sare sozialetan ere mugimendu handia izan da.

Orain arteko beste herri harresietan ez bezala, Amezaga ez da uneoro presente izan, eta herrian egin diren bi kalejirak baliatu dituzte hiru-lau orduz ateratzeko, “Gernikan libre bizitzeko” ideian sakondu asmoz. Koloreen bitartez identifikatutako taldeak antolatu zituzten, Ertzaintza etorri izan balitz, aterkiak ireki eta bakoitza alde batera ateratzeko adostuta. Gernikan izan direnek oroituko dute *Tutti frutti*, ekimen koloretsua. Donostiako AskeGunean zutabeak

nola, hala mugitu dute Amezaga herriko leku batetik bestera.

Dinamikaren bozeramaileek adierazi zuten, segurtasun neurriak medio, Amezagak ez du gaua kalean pasa, eta beraz bertara joandako solidarioek herriko etxe eta lokaletan egin dute lo.

Jone Amezagari 18 hilabeteko kartzela zigorra ezarri dio Espainiako Auzitegi Nazionalak “terrorismoa goratu” izana leporatuta, ETAren ikurra zuen pankarta bat jarri zuelakoan. Amezagak ukatu

Donostiako AskeGuneak Jaurilaritzari Ertzaintza ez bidaltzeko eskatu zitzaionetik, urte eta erdi igaro da. Polizia autonomikoa bidaltzeaz gain, eskatu gabe ere herri harresien aurkako jarrera hartu du

egiten du pankarta hura berak jarri zuenik, “muntaia polizial” gisa deskribatu du eta bere jardun politikoa-gatik atxilotu nahi dutela salatu du.

Kasua salatzeke Jone Libre plataforma sortu zuten Gernikan orain urtebete. Orduetik herrian informazioa zabaltzeaz gain, behin atxilo-

tarako agindua iritsi denetik, beste dimentsio bat hartu du gaiak. 100 pertsonatik gorako asanbladak egin dituzte, atxikimenduak lortu, hamarnaka bideo sareratu dituzte...

Ertzaintzarekin haserre familia

“Kasu hau hasiera-hasieratik ertzainek osatua izan da, hori da tristeena”. Joneren ama den Itziar Amezaga haserre da Eusko Jaurilaritzarekin. “Erabat prefabrikatua izan da, ertzainek eraman dute kasua Espainiako Auzitegi Nazionalera eta gero eskua sartu dute zigor hori gauza dadin”. ARGIAren webgunean bideoz ikus daitekeen elkarrizketan gehitzen dute Jonan Fernandez Bakea eta Bizikidetzarako idazkari nagusiak Espainiako aipatu auzitegia desagertzea eskatu duela. Haserre nabarmena da: “Hori eskatzea ongi dago, baina Jaurilaritzak ez dezala baliatu euskal herritarrek epaitzeko”.

Angela Murillo epaileak Jone Amezagaren atxiloketa Guardia Zibila eta Espainiako polizia nazionalari agindu bazien ere, Ertzaintzak jarrera aktiboa hartu du. Ertzaintzako inteligentzia zuzendariak argi utzi zuen herri harresiak saihestu nahi dituela, horretarako Auzitegi Nazionalari aldaketa legalak egiteko eskatu behar badio ere, ARGIAk publiko egin zituen dokumentuetan irakur daitekeenez.



Ehunka pertsona batu dira asteburuan Gernika-Lumon Jone Amezagari babesa adieraztera.

Donostiako AskeGunetik Jaurlaritzari Ertzaintza ez bidaltzeko eskatu zitzaionetik, urte eta erdi igaro da. Polizia autonomikoa bidaltzeaz gain, berari eskatu gabe ere Ertzaintzak herri harresien aurkako jarrera hartu du. Txosten honek herri harresiak eszenatoki politikoan eragiteko tresna eraginkorrak direla agerian utzi du.

Halaber, Loiolan eta Deustun ez bezala, asteburuan Jone Amezaga kalera atera eta Ertzaintza ez zen unean bertan agertu, Espainiako justiziak agindutakoa betetzera. Hori bertan bildutako askoren elkarrizketarako gaia izan da. Ertzaintzak ba al zuen planaren berri?

Mugimenduak atxiloketen aurka

Gernikako kasuak eremu politikoan mugimenduak eragin ditu. *Busturialdeko Hitzak* abenduaren 12an argitaratu zuenez, ertzain batek Jone Amezaga espetxeratzeko ebazpena bertan behera uzteko eskatu du, hainbaten artean. Eskualdeko hainbat udalek ere adierazpenak onartu

dituzte, horietako batzuetan EAJ-ren aldeko botoekin.

Desobedientziaren aldeko mugimenduaren barrenak ere mugitzen ari dira. Azken hilabeteetan Eleak eta epaiketa politikoen kasuak guttik bizi dituzten herrietan Libre lantaldeak elkarrekin dinamika bateratu bat sortzeko bilerak egiten ari dira. Prozesu horretan parte hartzen ari den kide batek ARGIAri jakinarazi dionez “Herri harresien fenomenoak jendearengan gaur egun pizten hain zaila den ilusioa eta grina eragiteko gaitasuna du”. Bere ustez desobedientziak borroka molde gisa jendea “betetzen” du. “Epaiketa politikoei aurre egiteaz gain, herritarrak aktibatzen ditu eta asmatuz gero, zenbait esperientzetan ikusi dugun bezala, gizartearen beste sektore batzuk erakartzeko gaitasuna du”.

Pixkana birdefinitzen ari dira Libre dinamikaren nondik norakoak, forma eta norabidea desobedientzia zibilean eta ekintza partehartzaileetan, “eskema alderdikoietatik aldentuta”.

Galdera berri batzuk

Espainiako Gobernuaren eta Auzitegi Nazionalaren jarrera ikusita, ba al dago atxiloketekin amaitzerik inoiz desobedientzia planteatu gabe?

Gizartea aldatu nahi dutenen artean, betiereko eztabaida da lehen-tasuna herri mugimenduetan jarri behar dela uste dutenen eta instituzio ofizialetan jartzearen aldekoen artekoa. Zein joera da nagusi egun Euskal Herrian? Tendentziak nora doaz?

Segura eta herriko tabernen auziek zer bide hartuko dute?

Epaiketa politikoen kasuetan, politikoki eragiteko herri harresia baino ekimen eraginkorrik ba al da?

Ertzaintzak herri harresiak eragotzi nahi ditu nola edo hala, horretarako Auzitegi Nazionalari bide judizial berriak irekitzeko eskatu behar badio ere. Zenbaterainoko babesa du Ertzaintzaren jarrerak euskal gizartean? Eta jeltzaleen artean? ■

argia.com Gernikako ekimeneko irudiak –atxiloketarena barne– webgunean ikusgai.

